



**A ORGANIKOAZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINAZIOAZ**

1977 - VII - 29

*J. Basterretxea*

Hitz hauekin ere lege generala jarraitzea nahi nuke proposatzea. Alde batetik errezagoa litzakelako euskal ikasle guztientzat eta beste alde batetik bizkaierazko euskalkiak eta besteak, ajola haundiko puntu baten asko hurbilduko litukelako.

Aita Villasante'ren LA DECLINACION DEL VASCO LITERARIO COMUN'etik hartuko ditut adibidezko hitzak eta azken A organikodun hitz bat ipiniko dut ondoan konparazioa egiteko.

Bokalez amaitutako arimagabekoak

Singularra

"Mendi"

1. mendi.a
2. mendi.ak
3. mendi.ari
4. mendi.aren
5. mendi.arentzat (tzako)
6. mendi.arekin (-agaz B)
7. mendi.az
8. mendi.an
9. mendi.ko
10. mendi.tik
11. mendi.ra
12. mendi.rantz
13. mendi.raino

"Gauza"

1. gauza.a
2. gauza.ak
3. gauza.ari
4. gauza.aren
5. gauza.arentzat (tzako)
6. gauza.arekin (-agaz B)
7. gauza.az
8. gauza.an
9. gauza.ko
10. gauza.tik
11. gauza.ra
12. gauza.rantz
13. gauza.raino

## Bokalez amaitutako arimadunak

	Singularra	
"Seme"		"Alaba"
1. seme.a		1. alaba.a
2. seme.ak		2. alaba.ak
3. seme.ari		3. alaba.ari
4. seme.aren		4. alaba.aren
5. seme.arentzat		5. alaba.arentzat
6. seme.arekin (-agaz)		6. alaba.arekin (-agaz)
7. seme.az		7. alaba.az
8. seme.arengan		8. alaba.arengan
9. seme.---		9. alaba.---
10. seme.arengandik		10. alaba.rengandik
11. seme.arengana		11. alaba.arengana
12. seme.arengantz		12. alaba.arengantz
13. seme.arenganaino		13. alaba.arenganaino

Separatzeko ipini dudan puntua ezta idatzi behar. Konparazioa errezagoa egiteko ipini dut.

Nola irakurri behar litzake AA hori? Batzuek (batez ere bizkaierazko euskalkitakoek) (ie, (ia), (ea), besteak (a), hau da A bakar bat bezela. Euskeraren batasun idatzia ezta denok berdin irakurtzekoa. Adibidez, BAINO gehienetan (baño) irakurri behar da mugaz alde hontan eta idatzita dagoen moduan mugaz haraindian.

Euskal ikasle batek ALABAREKIN irakurtzen duenean ezteki gero ALAB BAT ala ALABA BAT esan behar ote duen. ALABAAREKIN ikusten badu ordea, badaki ALABA BAT esaten dala. Gehiegi ez luzatzearren ez noa esaten gehiago, baina gauzak errezagoak egingo litzake euskeraz ikasten ari diranentzat baldin hemen proposatzen dudana onartzen baduzue.